Otsein Bergarako empresa izan arren, oso gutxi ezagutzen gaituzte Euskal Herrian eta Espainiako iparraldean. Gure marka hemen inguruan promozionatu nahi genuen eta Oriozale amorratua den gure zuzendarri sozialak, Eugenio Zaldunak, galdeztu zidan ea zergatik ez genuen Orioko Arraun Taldea babesten. Klubeko jendearekin hitz egin eta animatu egin ginan. Egia esan, Orioko giza taldeak harritu egin gaitu.

Zein balorazio egiten duzue denboraldiaz kirol eta publizitate mailan?

Denboraldia izugarria izan da, maila guztietan, eta horrek eragin zurzena izan du arrakasta komertzialean eta komunikabideetan izan dugun presentzian.

### Zenbat urteko akordioa duzue Oriorekin?

Bikoa, 1998 eta 1999. Orain elkarrekin bilduko gara balorazioa egiteko. Ez dakit hori izango den unea kontratu fuzatzeaz hitz egiteko.



Arraunlarien dieta zurruntasuna

## Makarroiak eta arroza

Txapeldun izateko ez da nahikoa estropadatan jo eti jo aritzearrekin. Baditu kirolak oso gutxi ezagutzen diren arloak, eta janariarena omen da, nagusien artean nagusi, errrendimenduan daukan eragin handiagatik.

Arraunlarien dietan %65a karbonohidratoak dira eta horiei esker lortzen du kirolariaren gorputzak behar duen errekin esfortzu handienak egiteko: makarroiak edo arroza ia egunero hartu behar dute. Hortik aparte, barazki eta berdura pixka bat, fruta eta gantza gutxiko haragiak edo arrainak plantxan eginda; horietxek osatzen dute eguneroko menuaren oinarria. Zein urrutia arraunlariek egun-

nean librako bi txoleta jan eta tostan eseritzen ziren garsiak!

Ez da batere dieta orekatua, errendimendu handia duelako helburu, eta, horregatik, elikadura oso osansuntsua denik ezin esan. Bitamina falta da, baita burnia ere... eta nahikoa erraza izaten da katarroak harrapatzera edo infekzioak. Ezinbesteko da mediku kontrol estua emanatea gaixotasunak aurrea ez hartzeko. Is urte osoan dieta aspergarri eta triste hori egiten dute.

Orain badakizue zergatik KARKARAki deok arraunean egin beharrean aldizkaria egiten dugun.

Euskaldunen Egunkaria-nik hartut. 98 /09/ 13

© olaragak

## ZAKILIYUT



# AIAKO berri



ANTZERKIA. Aiako gazte talde batetik antzerki taldeka matu nabiako luke.

## Antzerkira deia

*n Gazteek taldea osatu nabi dute antzerkia egiteko*

Negu partean herria triste xamarra gelditzen da, eta, arrazoi horregatik, gazte talde batetik ekintza berria bultzatu eta prestatu nahi du.

Hain zuzen ere, ikusirk herriko jaietan karrozak duen arrakasta, gazteek pentsari dute neguan ere zerhait egin daitekeela... eta zergatik ez antzerki obra bat prestatu?

### IENDEAREN PARTEHARTZEA BULTZATU

Idea mahai gainean dago, eta ahal den jende gehienak parte hartzea lortu nahi luke gaz-

teek. Iniziatiak bi helburu nagusi ditu: partehartzaileek ondo pasarrea, alde batetik, eta herri giroa bultzatzea, bestetik.

Horregatik, letero hauen bidez, deialdia eta gombitea luzatzen dizuegi animatzen zaren teniar guztiei. Deitu kultur etxera zuen ideiak emateko edota zuen burua eskaintzeko aktore lanerako.

Goiko argazki horretan haurrak ikusten diri antzerkia egiten; baina aurrera aterta nahi den proiectu honetan haur, gazte eta helduen partaidetza lortu nahi dute bultzatzaleek.

## Jende asko igerileku

Dagoeneko bukatu da udako denboraldia, eta aurten igerilekuak izan den jende kopuruaren datuak bildu ditugu. Udalak jakinarazi digunez, 180 lagunek egin dute abonoa; taldeka 500 pertsona inguru pasa dira, eta eguneko sarrerarekin bisitatu digutenak 3.400 izan dira.

Batzuek ahaztuta utzi dituzte toallak, zapatak, bainujantziak... Udaletxean jasota daude, baita ere, hiru giltza pare, —kotxeoak eta etxeoak—, norbaitek galdu zituztenak.

## Udal kiroldegia berriro martxan

Udako etenaldiaren ostean, berriro ere ikasturtea hastera doa eta ez haurrentzat bakarrik. Udaleko kiro instalazioak eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira: muskulazina, aerobics-a, hirugarren adinekoentzako gimnasia, judoa, gimjazz-a, sauna, frontoia eta masaje gela. Eskaintza zabala da, eta, gainera, klaseko orduak jendearen beharren arabera antolatuko dira. Izena kultur etxearen eman behar da.

**ARISTERRAZU**

**Jatetxea**

San Pedro Tlfno: 943 83 45 21

**SEGA**

ezkonfazak, batajoak,  
tagħrafiseek

Tlfno: 943 83 07 16  
Erreka auzoa

**KANUA**  
RESTAURANTE

Gaztegi Espanyola, 11 - AIA.  
Tlf. 943 83 43 22

\* Bertako babarrun eta haragiak.  
\*\* Espeko mikalde gozoa eta alsegura  
\*\*\* Haurestakoko menu berezia eta jolaslekuak



ATERPEA BERRIA. Mendizaleek tokiko idatzak dituzte Iturriortz-azpi, atsedet hartzeak.

## Iturriortz-azpi aterpea

Laster irekiko da Iturriortz-azpi aterpetxe berria, eta, diotenez, Gipuzkoako politenetakoia izango da. Iturriozko bentatik metro gutxitara dago.

Harriz eta zurez eginda dago etxea. Sukaldea eta tabernaz gain, hogeita hamasei ohe dauzka berruan. Etxearen inguruan, berriz, aintzira txiki bat dago, eta parke eder bat ere bai, solaserako. Par-

ke horretan mahaia, kolunpioak eta haurrentzako jolasak jarriko dira.

Mendizaleentzat egindako aterpea da, baina bestelako talde asko ere deika ari direla esan digute arduradunek.

Oraindik ez dute ofizialki ireki; baina, Ierro hauek argitaratzerako, hor nonbait izango da dena prest bisitariak hartzeko.

## LABUR-LABUR

### Pilota txapelketa

Orioko pilota txapelketako finalak sanpedrotan jokatu ziren. Palaz jokatutakoan, M. A. Eizmendi eta L. M. Manterola aitarrak 30-26 nagusitu ziren iazko txapeldunen aurka. Aiako jaietan ere garaille izan ziren.

### Lupita du Monde

Uztailaren 23an Marimba taldeak *Lupita du Monde* antzezlana surkeztu zuen. Aktoreak Rita Aldai aitarrak izan zen. Arrano Beltza kultur taldeak antolatu zuen, eta 100 pertsona inguru bildu ziren.

## Auzolandegian

**A**urtengo udan Galiziara joatea esperientzia ezin hobea izan da niretzat. Batez ere, jende eta ohitura ezberdinak ezagutu ditudalako.

Nonbaiten lan egiteko asmoan, auzolandegietan izena eman nuen, ea zorte pixka batekin herritik kanpo toki berriak ezagutzeko aukera izaten nuen. Handik gutxira, Eusko Jaurlaritzatik hots egin zidaten, Galizian toki bat zegoela esanaz. *Hara hor, nire aukera!* —pentsatu nuen—. Uztailaren 17tik 31 arteko egonaldia izango zela esan zidaten, eta 15-17 urte bitarteko 27 gaztek osatuko genuela taldea. Joan aurrelik, milaka kezka izan nituen: ez ote ziren egun gehiegi izango? edo lan gogorregia?... Bada, ez! Lagunak aurkitzea oso erraza zen, guztiek oso irekiak zirelako: bai euskaldunak, bai Mallorcakoak eta baita gallegoak ere.

Goizero egin beharreko lana monastegi erromantiko baten inguruak berreirai eta garbitzea zen. Arratsaldetan, ordea, Santiago de Compostela, A Coruña edo inguruak bisitatzen genituen, edo herriko hondartzan ibiltzen gin, boleibolean edo piraguan. Harrigarria egin zitzaidan, taberna batean, bi tipo inguratutu eta ea *giputxia* nintzen galderu zidatenean. Nik baietz, niarra nintzela, eta berak Usurbilgoak zirela eta Aiako jendea ezagutzen zutela. Nahiz eta euskaldunak gutxi izan, norbait egongo da beti, munduko txokorik bitxienera joanda ere.

Anima zaitez eta datoaren urtean abentura ederra biziko duzu! Zabaldu begiak: 10.000 PTaren truke, 14 eguneko opor ahaztezinak izan ditzaezu!

Maria Vilches

## ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak  
Bidaia eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

Tel. 943 83 42 75 | Mifilarren 70 | 01000 Vitoria-Gasteiz



Alitzpea, 14 Tfnoa: 943 83 42 75



Taberna Tel. 943 89 00 56

# Manuel Agirresarobe

## *tximeletazalea*

*Manuel Agirresarobe  
Huegan Altzolako  
Etxebetri baserrian jaiot  
da, baina 9 urterekin  
Irunera joan zen. Hala  
ere, ez ditu sustraiak  
abartzua eta beti esaten da  
Aiakoa dela. Erakusketa  
bat zabaldu du Irunen.  
7.000 tximeletarekin.*

Manuelen alizenak ere aia-  
tasuna adierazten du. Esan  
ziguenez, Agirresarobe izene-  
koak urtean behin elkartzen  
dira azken 6 urte honetan, eta  
aurreneko elkarteta Laur-  
gainen izan zen.

Erakusketan sartu nin-  
tzenean, harrituta geratu  
nintzen, ez bainuen espero  
hainbeste tximeleta erberdin  
ikusterik. Aurreneko impresioa  
pasa eta gero, gosatura entzun  
mituen Mamielen hitzak.

Erakusketa helburu  
didaktiko garbi batekin  
antolatuta dago, tximeleta  
mota bakotzaren azpian, fitxa  
argi batzuetan, adierazten  
baita non aurki daitekeen,  
ugaria edo eskasaden, zer jaten  
duen, ziklo biologikoa zein  
duen... Era, hori gutxi balitz,  
bi urtetan bildutako irudiez  
egin duen dokumental  
interesgarria bertan pauso  
pauso ikus daiteke txime-

letaren jaiotza eta bizitza. Iku-  
sitakoak ikusita, eta tximeleta  
zalea ez banaiz ere, hemendik  
aurrera beste errespetuz begi-  
ratuko diet.

### Zenbat tximeleta daude hemen?


Ia 7.000 dira. Hauek egu-  
nez ibiltzen direnak dira; eguz-  
kia behar dute hegan egiteko.  
% 10 bakarrik da, gainon-  
trekoak gauez ibiltzen baitira.

Beren bizitzaren luzera ere  
ezberdina da: batzak hilabe-  
teak, baina besteak ordu ba-  
tzuk besterik ez dira bizi; bai-  
na, normalean, egunez ibil-  
tzen direnak 15 bat egun bizi-  
tzen dira. Horibai, heldar gisa  
igual bi urte biziko dira. Bai-  
na, beren zoritzarrerako, or-  
duan kaltetegariak dira gizo-  
naren interesarako, fruituak  
eta zuhaitzak zulatzen dituz-  
telako. Horregatik, gizonak

lan egiten duen tokitan desu-  
gertzen ari dira, eta, ni hasi  
nintzenetik, orain dela 30 urte,  
erdira jaitsi dira. Gipuzkoan  
bertan 3 edo 4 mota dagoene-  
ko desagerto dira.

**Bi gelatan banatua dago  
erakusketa. Batean Estatuko  
tximeletak daude...**

Ia 200 klase daude. Kutxa  
bakotzean 12 daude: erdiak  
emeak eta beste erdia, arrak.



**HILBURU DIDAKTIKA.**  
Azpian datur  
fitxa bidez,  
tximeleta mota  
bakotzaren  
ezangarry  
nagusiek jakin  
daitezke.

Gaueko tximeletekin duten ezberdinotasuna hau da: egunekoak, lore baten gainean jarzen direnean, hegoak itxi egiten dituztela, azpiko koloreak moreagoak direlako eta kamuflaje bezala erabiltzen. Gauekoek ez dituzte ixten.

#### Batzuk errepikatuta daudela dirudi...

Horrela iruditzen hazaiz ere, ez dande bi berdinak, nahiz eta, batzutan, ezberdintzea ez den erraza izaten. Adibidez, batzuk pozotsuak direlako txori edo sugeentzat baina besteak ez, eta azken hauak egiten dutena besteen itxura hartzea da. Ginkgenitalak ateratzentzizkiegu, generoa jakiteko. Hala ere, batzutan ez da nahikoa izaten, eta orduan kromosomak aztertu behar izaten dira; horretarako, laboratorioan lan egiten dugu mikroskopioekin. Hori neguko lana izaten da; eguraldi ona egiten duenean, mendira joaten naiz tximeletak harrapitzeraz.

#### Nola harrapatzentziz?

Sarearekin harrapatu ondoren, botila baten barruan sartu eta kloroformo tanto pare batekin anestesiatu egiten dut, tximeleta evezaguna edo arraroa iruditzen hazait. Gero, eskuan jarri eta aztertu; lehendik baldin hadur, otzi egiten dut, eta handik minuto pare batera esnatu eta joan egingo da. Aldiz, arraroa bada, berriz botilan sartu eta berehala hiltzen da. Ondoren, laboratorioan aztertzen dugu.

Lan izugarria egina dago hemen...

MUNDU OSORIO  
TEMBETAK  
*Hegoamerikar  
irruk begy  
bandiagoak  
dinezte  
zabalago eta  
borobilago*



Bai, Tximeleta guztiak, banan, banan, eskuz, neukarrita daude. Kaxak ere nik egin ditut, egurrezkoak baino egokiagoak direlako metakrilatozko hauak, Iizunik hartzen ez dorelako. Urte askotako lana izan da, eta oraindik beste pila bat jartzeko dauzkat.

**Zeuk aurkitutako espezie berri bat ere ba omen dago...**

Bai, Alto de Campoó herrian aurkitu nuen, *Proctissima cumpuncta campurriensis* izena jarri nion, eta erakusketa dago hori ere.

**Gizonak lan egiten duen tokitan desagertzen ari dira tximeletak. Gipuzkoan hiru edo lau mota desagertu dira, dagoeneko.**

**Beste gelan erbestekoak dauzkazu. Nota biitu dituzu?**

Ni ez "naiz" joan Iku horietara, haina kontaktuak ditut, eta, zerbait interesgarria dagoenean, hura lortzen saiatzen naiz. Gela honetako tximeletak handiagoak dira: hegoamerikarrak adibidez, borobilagoak dira, hego zabalagoekin; Indonesiakoek, berriz, hego meheagoak dituzte, beste forma batzuk. Koloreak ere askoz bixiagoak dira. Hori bai, kolore politenak beti arrek izaten dituzte, emeak erakartzeko duten modua hori delako. Emeak, berriz, usaina izaten

dute berezia, arrak hurbil daitzen.

Beste tximeletak batzuek abildade berezia dute inguruarekin bat egiteko eta hosto itxura hartzen ere badakite; benetako hostoa dirudi; haina, ez hori bakarrik, udazkenak hostoen kolorea aldatzen duenean, tximeletak ere berdin egiten du, eta ia ezinezkoa da hostoa eta tximeleta ezberdintzea.

**Zer egin behar da erakusketa hau ikusteko?**

Astelehenetik larunbata bitartean, goizez edo arratsaldez, zabalik zituenetan, haina lehendabizi telefonoz deitzea komeni da, bidaezbada ere. Irungo Larretxipiko kaleko 5ean nago, nire telefonoa 943 62 09 93 da eta gustura erakutsiko diot nahi duenari hemen dagoena.

**ERROTA**

- Eztel ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabalak
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tlfnoa: 943 83 54 65

**KARKARA**

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

943 83 15 27 ALDIZKARIAN

# San Antonio

*Aurreko zenbakietan berriko soziedadetik emun diegu gainbegirattua atzean utzita, hemendik aurrera baporeei helduko diegu eta San Antonio baporearekin emango diogu basiera atal boni. Horretarako, Juanito Dorronsororekin izan gara bizketan. Baporea eta itsasoa izan ditugu bizketagai.*

ANA ITURAIN

San Antonio Berria izena diuen oraineko baporea 1963an egin zuten, kaskoa Orion egin eta motorra berritu zuten. Geroztik, 87an berritu eta lutzatu egin zuten, eta 90ean, motorra berritu.

Azken bapore hori egin aurretik, lehen, zazpi-zortzi urtez behin egiten zuten herria. Horrela, 1940an San Antonio de Padua izeneko bapore berria egin zuen Orion Manuel Ostolazak. Horren aurrekik zeukanera garai hateko tximini eta kaldera zuen horiakako zahtar bat izan zen. 1946an berria egin zuten Lekeitioan, 53an beste bat eta, azkenik, lehen aipatutakoa 63an.

*Lehen bazegocia urte gutxitan berria egitea; orain, berriaz, ezinezkotzat da, 260 milioi bokar ditzaz eta huri diru asko da. 63an egin gennuenak lau milioi eta erdi baino izan zuten eta orduan dirua zen, baina...*

Etxeko baporeak beti San Antonio izena izan du, baina

izen hori zergatik duen Juanitok ez dako. Hori bai, lehen, urtero familiarekin Urkiolara joaten zen.

#### HIRU GIZON ITO ZIREN BARRAN

Aspaldi honetan San Antoniok beti kolore urdina izan du, baina lehen zuria izan zen, eta bapore zuri hark jende askok gogoan izango duen ez-

beharra izan zuen. 1943ko apirilaren zaprian itsasora zihoa zela barrako horretan itsasoak behean hartu eta istripuan hiru gizon ito ziren: Joxe Kutz Lopetegi, Santiago Otegi eta Juan Jose Iparragirre. Geroztik ere, San Antoniok beti kolore urdina izan zuten Juanito zihoa baporen, baina ez zen larria izan. Laidako hondartzan hondoa jota geratu ziren, eta gaitzerdi, Izaro ugarteja jo gabe barrenetik sartzea zorte handia izan baitzen.

#### ITSASOA BANDU ESPERANTZARIK

Azken urte hauean askoz bapore gutxiago dago, Juanitoren ustez urte txarrengatik eta onderengoei jarraitu nahi

izan ez dutelako izan da, eta betak esan bezala *lehen arraia gehiago izaten zen; baina itxas batzuk zaintzen baldin bada gatzekiztan du bizi modua aterataz, aberastea ez, baina hai ohibide bat izan*. Orain askotan multe eskasia izaten da baporetan, agian bizimindu gogorra delako itsasokoak, baina lehenengo aldean gauzak aldatu egin dira eta baporeak ondo daude orain. Komuna, dutsa eta urgezta dute, jana ere asko aldatu da. Lehen koltxoak edo lastarrak artaburu hostoz eginda zeuden, eta astean behin-edo lehortzen jarri beltar izaten ziren eguzkitan. Sareak ere algodoizkoak ziren eta usteldu egiten ziren...



INOI EZ OSO URRIKIRA.

San Antonio ez da sekula Azores eta Ameriketara joan. Gisiko argazkian, San Antonioren zuberria.

**Pelikeria eta erretika misioa**

- Dientzako agenteak eta kolaboratzaileak  
- Dientzako teknika eta teknologia  
- Ariketak, antolaketa  
- Produktura  
- Geopolitika

Tel: 943 85 31 70

**ALLIANZ-RAZ seguros**

MARIGRE ZALDUA  
Argungo argazkia

Bet Ondo, 10  
Tel: 943 85 31 03

**iTZiAR**  
**Kirolak**

Tel: 943 83 31 03

**OLIDEN HARATEGIA**

Eusko Gudari, 2  
Telfnoa: 943 85 10 86

# EUSKALDUN

## berriak



### FELIX MASA

Gurasoekin etorri zen Oriora duela 34 urte, Cáceres'tik bertaratzagoen Casa Tejada herritik, hango egoera kaskarretik atera nahian etorriziren, hemen bere seme-alabentzat etorkizun oparoagoa izateko itxaropenarekin. Aiako Santio auzoan jannizten bizitzen Felix eta gurasoak.

Garai hartan Felixek hamalika urte zituen. Eskolan, lagunen artean, euskara bakarrik entzuten zuen eta, Santioko giro euskaldunak bultzaturik, euskara ikasi zuen. Santioko jendeak ez zekien goztolera, nik ore gutxiago euskaraz; eta, orduan, euskara ikastea beste erremediorik ez zuen izan, eta hantxe ikasi zuen dia.

Gaur egun Orion bizi da eta familia osatu du oriotar batekin. Bere bi seme-alabek ere euskara izan dute ama-hizkuntza. Edozeinekin euskara jarduteko erraztasuna duela dio, eta horrela aritzen da, indako problemarik gabe, zaharren tabernan emazteari lagunduz, baina behin batuan edo beste euskalki batean hitz eginez gero, orduan ibiltzen omen da komeriatan euskararekin.

Hika jarduteko ere gai da, nahiz eta, aldiun behin, hankasartzeren bat edo beste egiten duen. Euskararen zaitasunik handiena aditzarena iruditzen zaio, inolako zalantzak gabe; alrebes samarra egiten zaiola esaten du, gainera.

Bere ustez, Euskal Herriko bizitza eta oritzetan derr edonork ikasi beharko luke euskara, bertan bizitzeko garrantzitsua iruditzenean baitzain. Ez dakienan, beraz, euskara ondo ikastea gomendatzen dio. Gainera, gaur egun edozein lanetarako ere eskatzen dute euskara, eta komenigarmia da ondo jakitea.

## Argizariaren egunak

ANJEL LERTXUNDI



NOBELA

### 'ARGIZARIAREN EGUNAK': LERTXUNDIREN AZKEN NOBELA

**A**njel Lertxundik, bere Argizariaren egunak nobela berriarekin, Alberdiaria argitaletxeak Andurentzat sortu zuen. Iñaki Lertxundi liburu-saila ibzi du. Sail horretako lanen artean ezberdinak handiak daude, bal forma, baita edukiaren aldetik ere; horrela, bertiz ere, Lertxundiren ezaugarnagusienetako bat baietzaten da, hots, onotarraren lan guztiak ezberdintak direla eta beti hilde berriak urratuz doala.

Argizariaren egunak gaurko egunean kokatua dago, pertsonaia nagusia telebistako *free-lance* hat da... Alde horretatik eraikat motibernoia da eleberria, nahiz eta bertan lantzen diren gai nagusiak betiko eta betirako gaiak izan; heriotza, eromena, eta idazketari buruzko hausnarketak, besteak beste.

Hari nagusia triangelu sentimental baten inguruan garatzen da, pertsonaia nagusiaren erromancerako bidean. Bertan Lertxundik, Otto Petre eta Azkenaz beste nobeletan bezala grabatu bat aitzaki hartuta, lotura bitxiak sortuko ditu, tentsio handiko pasarteak lortuko, Kontakizun nagusia aitzaki hartuta, azpinarrazioak barneratzen ditu idazleak, ipunak tartekatzen, idazketaren gaineko iruzkinak egiten.

Heldutasuna aspaldi lortu zuen idazle baten aurrean gaudela egiazta dezakegu paragrafo bakotzero, edozein eremutan aise dabil Lertxundi. Ezagumak dira bere aberastasun lehikala eta estilo landua, baina ez deziala honek irakurlekin atzera bota. Argizariaren egunak saku aberatsa da, baina edonork erraz hustu dezakeena; ez deziala, ez, inork gentsa hau maiztan gorra sorbaldan eraman beharreko zama denik. Gainera, Lertxundiren saku zamatuak hustu ditugunean ere, ez al ditugu, ba, urez beteta topatu?

ÍñIGO FERNANDEZ

### ZORIONAK

#### Arraun Elkarteari

Ale honetan ez dugu zalantzak izan zorionak eskaintzeko orduan. Eta, egia esan, meritu hanaketa oso erraza jarri digute Arraun Elkartekoek.

Zorionak eman nahi dizkiegu Arraun Elkarteko kide guztiei —bandera astintzen datenei zein itzalcan lan egiten eta geratzen direnei— udan egun ederretaz gozatzeko aukera eskaini digitelako. Eutsi golarri!

### ZORIOTXARRAK

#### Orioko Schumacher ustekoei

Herriko kaleetan auto eta motoetan ziztu biziari ibiltzen direnei, gainontzekoak errespetatu gabe eta benetako arriskua sortuz.

Uda honetan nabarmena izan da hondartzako bidean zenbat gazte txoro ibili den automobilean denak emanda. Araza jakina da eta udaltzain eta erzainek neurriak hartu beharko lituzkete ezer laurri gertatu aurretik. Gero ez du erre mediorik izango.

# Orio bigarrena izan zen Kontxako estropadetan

D  
onostiako estropadak irailaren 2an eta 9an jokatu ziren. Bi igandeetan oso eguraldi ona egin zuen, eta –izurten ez bezala– ez zuten arazorik izan. Orio fabrikoetako bat zen, eta apustuetan dirua Orioren alde jokatu zen. Irabazlea, ordea, Lasarte Mitxelin izan zen.

**LEHENENGKO IGANDEA.** Ostegunean Hondarribian izandako kanporaketetan zortzi ontzi hauak sailkatu ziren: Lasarte, Astillero, Getaria eta Beraun (urreneneko txandilarako) eta Orio, Hondarribia, Hernani eta Kaiku (bigarrerakoa). Oriorekin batera, Lasarte eta Getaria ziren fabrakoak, baina hainak estropada txarra egin zuten. Hona hemen aurreneko igandeko sailkapena eta denborak: 1. Lasarte, 20-50. 2. Orio, 21-07. 3. Astillero, 21-08. 4. Hondarribia, 21-22. 5. Getaria, 21-35. 6. Beraun, 21-52. 7. Hernani, 21-58. 8. Kaiku, 22-10.

**BIGARREN IGANDEA.** Bigarren iganderako getariarrek arazoak izan zituzten kuadilla osatzeko, arraunlari batzuek ez zutelako ateratzen. Getariarrek, orduan, hamaiaka arraunlariarekin ateratzeko haimena eskatuzieen antolatzaleei, baina czechko jaso zuten. Azkenean, arazoak konpondu eta bigarren igandean ere Kortean izan ziren getariarrek.

Orioi aurreneko kalea tokatu zitzaien eta Lasarteri bigarrena. Oriok, irreera eta ziloboga txarrak egin omen zituen, baina, hala ere, Lasartek denbora gutxiago ateratzen zion aurreko igandeari baino. Lasartek 20-50 egin zuen, eta Oriok, 20-58. Oraingoa denborak ikusita, nahiko denbora kaskarrak irudizten zaizkigu, baina Baserririk bere kronikan esan zuen Lasartek egindako denbora hobetzea zaila izango zela urte hartzuetan.

Sailkapen orokorra eta irabazitako sariak huez izan ziren: 1. Lasarte, Bandera eta 200.000 pezeta. Ganontzekoek trofeo bana eta dirua; 2. Orio, 150.000 pezeta; 3. Astillero, 120.000 pezeta. 4.



Hondarribia, 85.000 pezeta. 5. Getaria, 60.000 pezeta. 6. Beraun, 45.000 pezeta. 7. Hernani, 40.000 pezeta. 8. Kaiku, 35.000 pezeta.

**KLUBAK KALERATUTAKO OHARRA.** Dirudienez, Kontxako estropada zela eta, zurrumurruak eta hitz itsusiak ibili ziren herrian, eta, orduan, Klubak oharr hau kaleratu zuen (erdaraz zegoten, eta guk euskaratu egin dugu): *Estropada garaiak baiditudi Orioan beda irekitzen dela zentzaitjende eta talde maitzeko. Horren aurrean Orioko Arraun Elkartea ondoren gauza adierazi nahi du...*

- Klubak beti gorbi izan du José Mari Gozategi arraunkariak portera zintzoa izan duena.
- Alejandro Olidenek diruton zein jenerotan klubari behin baino gehiagotan legundu izan dio, eta familiako kide batzuk klubeko bazkideak dira.
- Baten hotsak holdin biak zerbitz esateko esan dezan, baino arotzeko bideratu zioke.

**BERAUNEN ETA BILBON ORIO GARAILE.** Beraun eta Nerbioiko estropadetan Oriok Kontxako errebantxa hartu eta Lasarteren aurrelik geratu ziren. Beraunen Oriok hemezortzi segundu ateratzen zituztien Lasarteri eta Bilbon aldea handitu egin zuen hogeita lau ateratzen baitzizkion.

**ESKOLA ETA FESTAK.** Eskolak orduan aurten baino beranduxeago hasi ziren, irailaren 17an, baina haurrek berehala festaz gozatzeko aukera izan zuten. Irailaren 20an, liberazioaren eguna ospatzeko, goizean txistulariak izan ziren eta arratsaldean dantzaldia plazan. Urriaren leian, berriz, Caudilloaren eguna omen zuten, eta honi ospatzeko ez zen eskolarik izan.

**TANATORIO ZARAUTZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
Hiletoko zerbitzu orokorreko

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiorako zerbitzua  
\* Belotorio gelak  
\* Korosiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35-Z Zarautz  
Tel/Fax: 943 13 22 52

**AHOIKULARITZA**  
Fisicoa, laborala, kontablea

*Eugenio Garmendia*

**ASEGURU ARTEKARIA**

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**DORRONSORO**

JANARIDENDA

www.dorrondonoro.com

**Carmen**

**Arraindegia**

Tfnoa: 943 83 05 37

**JUANTXO**

**harategia**

Nerriengoe txekoa,  
Especialitatea: triplexak, ostikak,  
etxeeko produktuak...

Tfnoa: 943 83 18 37

**Juan Albizu**  
elektragailuak

ETA GAIA!

**sukaldeko**  
**altzariak!**

Tfnoa: 943 83 12 49

# ZURE ARGAZKIA KARKARAN

Zuen ezkontzako argazkia —edo seme-alaba jaioberriaren—txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bidalizezaguzue eta jarriko dugu. Hau da egin behar duzuena: argazkia KARKARAren buzoian utzi edo taldekoren bat eman. Hilabete bakotzean, aurrena iristen zaiguna jarriko dugu.



## Nora Zipitria Ezenarro

Argazkiko neskakxa aiarra da, eta Nora Zipitria Ezenarro du izaera. Uztailaren 28an jaio zen eta etxeko bigarren umea da. Andrea

du izena Noraren ahizpak eta 2 urte ditu. Aita Mikel eta ama Belenek gustura egoteko moduko neska polita dute.

### IAIOTAKOAK

#### ORION

Gantxe Arribi Ugarte, ekainaren 14an. Eneko Lizarralde Lazkano, ekainaren 23an. Nadege Oñatezola Azkue, ekainaren 28an. Unai Zubizarreta Arellano, uztailaren 2an. Imanol González Lertxundi, abuztuaren 2an. Asier Lopezetegi Tagle, abuztuaren 7an. Unai Azkue Elxibarria, irailaren 2an.

#### AIAN

Iñaki Gorostidi Izeta, uztailaren 12an. Leire eta Iker Arribi Amaia, uztailaren 13an. Jon Aranberri Lertxundi, uztailaren 24an. Nora Zipitria Ezenarro, uztailaren 28an. Jon Alkain Urdampurin, irailaren 17an.

### EZKONDUTAKOAK

#### ORION

##### ekaina

Jokin Uranga eta María Ascension Betaseñez, 27an. **itzulia**

Iñaki Amurizbarrena eta María Jesus Uzkudun, 4an. Manuel Paz eta Agurtzane Astizartaga, 18an. Patsi Oláizaga eta M. Jesus Uranga, 31an.

##### abendua

José Manuエル Balda eta Dorleta Irazorza, 22an. Miguel Zalama eta Soraya Karrera, 22an. José António Rodríguez-Serna eta Ana María Agirrebeña, 22an.

##### maia

Iñigo Palacín eta M. Aranzazu de Zaragoza, 12an. Itziar Esnal eta Isotel Velis, 19an. José Mige Leunda eta M. Elenia Lejarraga, 26an.

#### AIAN

Gorka Arrese Mendizabal eta M. Eugenia Aiztegi Iurretagoiena, irailaren 5ean.

### HILDAKOAK

#### ORION

Bentita Uri Segundo, ekainaren 18an, 70 urte. María Bastida Aranguren, ekainaren 24an, 78 urte. Manuel Sarasamendi Sagardia, uztailaren 2an, 47 urte.

Juan Antonio Martín Sastre, uztailaren 17an, 52 urte.

Imai Arribi Arribi, ekainaren 22an, 84 urte. Modesta Euski Etxebarria, uztailaren 26an, 86 urte. Matilde Arantegi Arribi, abuztuaren 16an, 103 urte. Bartolomé Gómez Tukosa, abuztuaren 30ean, 78 urte. Aintzira Urretabizkia Arashmengi, irailaren 4an, 28 urte.

#### AIAN

Manuela Uranga Urtasun, abuztuaren 4ean, 90 urte. Juana M. Etxeberria Azkue, irailaren 17an, 91 urte.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

# KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

## NIRE HONETAN

## Denetik pixkat eta ezer ez

Gurean, KARKARA, bilerara agertzen ez denari tokatzen zai gauzark zailena. Gauzark zailena baino, inork egin nahi ez duena tokatzen, zaiola esango nuke nik. Badira lan zailagoak, baina honako zutabe hau inork gutxik nahi izaten du. Berehala bete daitekeen zerbait dela pentsa lezake irakurleak. Egia da. Baina, zer esan dezaket nik zure intereserako?

Kontxaz hitz egin dezaket. Mila zorion eman arraunlariei eta ondo gelditu; baina KARKARA honek arraun denboraldiari errepaso ederra eman dio, dagoeneko. Udaz ere hitz egin dezaket, hondartzako lanak sipayu... baina gure hondartzan lau aldition bakarrak izan naiz aurten; beraz, ezin ezer esan. ETA-renusu-etenari buruz idatzeko eskatu dit batek. Eta nik nahia gozko nuke norbait horrekin buzkaloste batean gaiaz aritu. Horrela nire eta bere iritziek parekatuko genituzke.


Herriko obretaz ere badago zer esana: semaforo ditxosoa, zubi beharrean eten behurtzaigun bidea... baina horretaz ez dut hitz egingo, hiru minuto bakarrik ematen dizkit eta semaforoak pasatzeko.

Kuadrillakoek Gazte Informazio Bulegoa eskatuz idatzeko esan di date, asteazkenetan Zarautz joaten baitira lan eskauntzak begiratzen. Ezin nuen jarri gabe utzi.

Gure herria oraintsu ezagutu duen batek nahiko herri posatai irudizen zaiola esan berri dit. Horretaz gustura aritu nintzateke, baina zutabe hau gubixio da.

Lekua bukatu zaizt.

Nere Manterola

KANPOAN  
daudenak

## Felipe Goiburu Manzisidor

**F**elipe Italiako Alto Adigge eskualdeko Bolzano hirian bizi da orain dela bederatzu urtez gerotik. Bolzano Austria ondoan dago, Tirolen; beraz, oso menditsua da, eta, dirudienez, zoragarria.

Hara joateko arrazoia neska bat izan zen. Felipe Getarian bizi zela, gero bere emazte izango zena ezagutu eta berarekin Italiara joatea era-bakizuen. Harajon zentean, sagarrak biltzen aukitu zuen lana, baina lan gogorra da, eta, gerotik, igeltsero eta fabrika batean aritu da lanean. Han lana aukitzea, hemen ez bezala, erraza omen da. Italiako probintzia-rik aberatsena baita.

Bost urte ziren Felipe ez zela Orio-eta etorri eta oso aldatuta ikusi du herria (hondartza, harra berria, etxeak...). Hobeto ikusten du; baina, eraberran, zerhau galdu duela irudi-teen zai. Gogoan beste herri bat zeukan, eta gogorrak egin zaio bat-batean horren aldatuta ikustea. Hemen izandako egunetan estropadaren bat eta errezipimendua ikusteko aukera izan du, eta hunkitu egindako, ahaztuak zituelako eta tokitako gogorapenak berriro bizi dituelako.

Oso pozik ibili da egun hauetan bere zazpi urteko Julen semeari hemengo gauzak erakusten, eta hain gogoko dituen arraina (bederatzu urtetan berri jau du atun fresko Italiani, sagardoa eta paborrana dastatzen).

Hemengo jana, bizimodua, jendea eta itsasoa gogona izaten ditu beti Italian dagoenean. Orain dela bi urte, emaztea eta biak banatu zirencan, hona etortzea pentsatu zuen, baima, semea handuenez, Bolzanon geratzea erabaki du.

Bolzanon, orain, ondo hazi da, baina hasiera gogorra egin zitzaiori, batez ere, hizkuntza ezagutzen ez zuelako, eta bizimodua desberdina delako. Hemen bizimodua kalean egiten dugu eta han, berriz, etxeen, Bolzano Italian eponagatik, hango kultura alemaniaira da, batez ere inguruko herri txikiakoa, eskualdea Tirolen dagoelako. Italiara eta tirolesta (alemanieraren antzekoa) dira bertako bi hizkuntza ofizialak, eta erakunde publikoetan lan egiteko derrigorrezkoa da biak jakutea. Felipek italierez hitz egiten du, eta aurtengo ikasturtean tirolesta ikasteko asmoa du, han klaseak doan baitira.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

# KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

# ORIO

## *antzinako garaitan (1)*

KARKARA aldizkariaren 70. zenbakian gure itsasadarreko bainbat eraikuntza aipatzen nituen; beren itxura, kokapena, izena eta abargatik ibaiaren defentsarako sortuak izan zitezkeelako.

ANTXON IBARGOIEN

Gaiarekin jarraituz, ikus daitzke, haitu ere, estrukturako merritzial batzuk, denontzat oso ezagunak direnak, eta *portu* deitzen direnak: Martin Portu, Anibarko Portua, Portu, Portusagasti, Amas Portu eta abar.

Gauza horiek hausnartzen ati naizela, haeritu egin naiz konturatzean gore batzuk ere baditugula. Gutsienez bi, nabarmen: Lizar-gate eta Beogate; eta, agian, beste batzuk ere bai, hain argi eta garbi adierazitzit ez ditugunak.

Esan beharra dantut, nahiz eta zuek gehienek jakin, *gate* hitza, anglosajoir, *portu* hitzak erromantzean esan nahi duen izan littekeela.

Nire ustez, baserri horiek *gateak* baldin badira, Nafarroako erresumak Gipuzkoa kontrolatu haino aurerragokosk beharko dute izan. Bestela, zerbaite idatzina ere eduki beharko genake berezitasun garrantzizko horren gainean.

Baserri horiek *gateak* direla pentsarazten didima ez da bere izen eta kokapena bakarrik. Lizar-gateren kasuan, bereziki, badaude beste datu batzuk inguruan, hori egiazatzeko lam; eta ezinezkoia iruditzen zaizten dena kastilatxe hutsa izatea. Lizar-gate zen baserri bat, autopistaren eraikuntzak des-

agertarazi zuena, eta Txankako erreka eta Aranoko erreka banatzen dituen bezkar gainean zegoen. Bizkar hartatik pasatzen zen, baita ere, Orio eta Igeldo arteko galtzada; edo, bereziago esanda, San Martin ermitatik Andu baserrira zehoana. Lizar-gate baserria la zintzilik kokatuta zegoen Txankako erreka aldera, eta, beraz, ez zen ikusten Oria ibaitik.

### ARGOLLAK ARANO INGURUAN

Gainera, Aranoko errekkaren azpiko aldean baziren argolla batzuk, bere itxura eta handitasunagatik, itsasontziak lotzeko modukoak. Batzuk, San Juan ermitaren inguruan,

aditzeraz denez; beste batzuk, hauek egiaztatua, Katxinmendi deitzen zaien ibarrean kokatuak. Katxinmendiko argolla horiek ere desagertuak daude. Autopistaren betelanak ezkutatu zituen. Baino bi pertsona aurkitu ditut, berak ikusi zituztela esaten dutenak. Eta, argazkia erakustean, banan bana, biek tokia bera seinalatudute. Pertsona hauek diri: Domingo San Sebastian Larranaga eta Angel Solaberrieta Etxezarreta.

### DAGANDIBURU = DRAGANDIBURU?

Hurrengo probarako agirizahar batera jo behar dute, historian zehar Orio lehen aldiz aipatze duena. Agiri hori Nafarroako Errege Garcia Ramirezek Pamplonako Santa Maria elizari egindako donazio bat buruzkoa da. Agiria 1141-1150 urtekoa da (ikusi 2. KARKARA).

Agiri horretan, beste batzuen artean, Dagandiburu izena agertzen da. Eta gaur egun Andu izenez ezagutzen dugun baseria izango da, noski.

Nik ezagutzen ditudan hizkuntzatan Dagandiburu ez da ezer. Baino 'r' bat eransten badiogu, hau da, Dragan-diburu idazten badugu, horrek ematen digu Lizar-gateren jatorria.

*Dragar, dragan, drakar* eta ahar itsasontzi normando edo vikingoek generikoki hartzet zuten izena da. Eta izen hori aurreko aldean, goian, dragon baten buruaren apaindura zutelako ematen zitzaien. Beraz, Aranoko errekkako inguru hori, drakaren amarraldeku, ontsiola edo borrelako zerbaite izango zela pentsa daiteke.

Itzurraga KARRAKO lehurramak da

ARGOLLAK ANTILLAN.  
Aranoko errekkaren  
inguruan, gata  
egun autopistak  
etabiltako lekuak,  
argolla batzuk  
zuden, ontzak  
amarratzeko  
egunak  
ziruditezenak.  
Gizak  
markatzeko  
toki zebarza.





## Aiako 'Mariaren alabak'

**A**rgazki honek 45 bat urte inguru ditu. Bertan agertzen diren Aiako neska gazte horiek eskusuna egitera joan zireneko da. Garai haietan elizak antolatutako bi taldean banatzen ziren gazteak: *Mariaren alabak* izaten ziren neska guztia eta mutilak *luistarrak*.

### LEHIAKETA

- 1.- Argazkian azaltzen diren lau nesken izen-abizenak asmatu behar dituzue.
- 2.- Galdera: Zein herrian aurkitu zuen Manuel Agirresarobe tximeleta espezie berria?

Bi galderen erantzun zuzenak asmatzen dituztenen artean afari bat zozkirtatuko dugu. Afaria Itsas Ondo jatekoean izango da. Erantzunak urriaren 30erako bedali behar ditziguzue, helburu honetara: KARKARA aldizkaria. Ezetz ezagutu lehiaketa, Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara).

### AURREKO IRABAZLEA

Oporrak ez ditugu iñaki bakarrak hartu: inortxok ez digu idatzitako lehiaketaren erantzunak ertanez, beraz, ezin diogu saria inori eman.

Alperkeria alde batera utzi eta berri ere gurekin jokatzen animatzen zaiteztegu. Oraingoan, Aio aldera jo badugu ere, ez dago hain urrutik: peskisa txikiren bat egiteko, ea asmatzen duzuen nor diren.

**EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA**

**KARKARA**  
943 83 15 27

ALDIZKARIAN

## "Estropa egunean txuleta haundia jaten genuen"

Inazio Manterolak, 'Txokolatek', datorren urtarrilaren 29an beteko ditu 95 urte; hau da, Orion bizi den gizaseme zaharrena da. Nahiz eta datak gogoan ez izan, arraunaren inguruko hamaiaka istorio kontatu dizkigu. Garai batean bera omen zen arraunlaririk onena. Askotan esaten dute herriko zaharrenek: 'Txokolate bai arraunlari fina...'



INAZIO MANTEROLA

Txokolate

34 urte

Joan dan jaiean, Kontxako estropan, ez zegoen jokatzerik; itsaso haundia zan. Gu hondora joan ginanean ere, 35ean, horrela zegoen itsasoa. Egun hartan, Domingo Beltza zan patroi; txalupan olatua sartu, zulatu ta hola joan ginan hondora. Bainha hurrengo jaiean, bigarrenean, aurrena etorriginan; baina premiorik ez genuen hartu. Orduan, hondarribitarrak ziran kontrarioak.

Entsalotan, berriz, San Pedro jailetan hasien ginan, orduan denbora gutxi egiten genuen. Entsaioa egin eta gero, sagardotegira joaten ginan. Bestelako otorduetan, berriz, babarrunak, taloak eta holakoak genituen; baina, hori bai, estropa egunean txuleta haundia jaten genuen. Badakizu, estropalari ona izateko, indarra behar da, gero!

Lana ere egiten genuen; bai, horixel izugarri. Eguerdian estropa jokatu eta, arratsean, anguletarra, edo bestela, arral txikitara joaten ginan. Baporea egin genuenean gelditu nitzan arraunetik. Bainha,

hon baino lehen, Inazio Sarasua zanari erakutsi nion arraunean. Hura nire koinatua zan, eta, ni adina jarri zenean, nere leku hartu zuen eta nik laga egin nuen.

Neretzat estropa importanteen Araneta hondarribitarraren kontra batelean jokatutakoa da. Harek nerekin jokatu nahi zuela, ta nerekin, ta... azkenean, Kontxan egin genuen estropa. Gaur jokatzen den leku berean; baina Santa Klara kanpo alderaino bakarrik joan ginan. Ni etorri nitzan aurretik eta, premioa zan bi batel launa arraunekin. Egun hartan jende asko bildu zan estropada ikustera. Erramolino nere lagun haundia zan eta harek ez zuen batelik; orduan, pentzatu nuen hari batela bat. Iau arraunekin ematea, Erramolino ere arraunlarri baitzan. Txaranga etorri zan ni bizi nitzan etxe aurreraino, erreuibimendua egitera, eta amak balkoira ateratzeko ateratzeko esaten zidan, baina ni nekatuta nengoentzat ohean sartu nitzan. Nere amak atera behar izan zuen balkoira eta han zeudenei esan ni ohean sartu nitzala.

Garai batean txalupa bi makilen gainean jartzen zan plazan eta, jendeak tipularekin igurtzitzen zuen txalupa. Tipulak koipetan izaten du eta harekin eginez gero uretan errazago joaten zan. Hori esaten zuten lehen, behintzat. Herriko jende dexente joaten zan: egun hoiolan plazara.


Gogoan del, txalupa Ondarrun egin zutenean ta Zarautzaino kamioi batean ekartu zutela; Zarautza allegatu ginanean uretan sartu ginan hura probatzera, baina itsaso haundia zan, eta, berriz lehorrean jaso, bizkarrean hartu, eta Oriora ekarti genuen. Beno (irriborrez), txandaka ekarti genuen, eh?



Kafe hauek denak...  
FREXKOAK  
XIGORTU BERRIAK  
XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



**BAQUÉ KAFEA**  
XUARRA

